

Urumea ikastolak igandean egingo du urteroko jaia

■ Ipuin klasikoak eta mahai jokoetan oinarritutako antzezpenak dira aurtengo ekitaldietako ardatza ■ Galarreta pilotalekuan da, 11.00etan hasita.



Urumeako ikasleak antzeztzen, iazko festan, Galarreta bete jenderen aurrean.

URUMEA ikastolak urteroko jaia du igandean. Duela 30 inguru hasi ziren egiten "guraso, ikasle eta irakasleen bilgune" izan zedin. Festak sekulako arrakasta du eta urtero Galarreta pilotalekua bete egiten da.

IKASLEEK PROTAGONISMO OSOA
"Urumeako jaian ikasleek dute protagonismo osoa" esan digu Xabier Balerdi irakasleak. Ikasleek aurkezten dute ekitaldi osoa eta ikasle denek hartzen dute parte ekitaldiren batean.

Hala ere, planteamendu hori nahiko berria da. Lehenago artista haundiak pasa izan dira ikastolako jaian: Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo, Olatz Zugasti, Xalbador

eta Mattin bertsolariak... Umeak dira orain jaialdiko izar.

Ikasleek Frantsezez eta ingelesez ere abestuko dituzte

kantuak. "Klasean hizkuntzei, eleaniztasunari, ematen diogun garrantziaren lekuko da hori" dio Balerdi irakasleak. □

EGITARAUA

AGURRA:

Bertsolariak eta dantzariak

HAUR HEZKUNTZA

(2-12 URTE)

Ipuiak antzeztu (*Edurnezui eta ipotxak, Hiru txerri txoak, Katu botaduna eta Txanagorritxu*)

Kantuak ingelesez (*Walking Walking eta Head and Shoulders*), Frantsezez (*Fais dodo, colas*) eta euskaraz (*Xalbadorren heriotza*)

LEHEN HEZKUNTZA

(12-14 URTE)

Bi kanta ingelesez: *Strongman Jack, s Day* eta *Sahalala lala*

BIGARREN HEZKUNTZA

(12-14 URTE)

Ikurrin datza (*Atsedendia*)
Ganbaran: joko dantzak

LEHEN HEZKUNTZA

Mahai jokoak (antzezlanak)

Luzaide Erromeria

Correos zabaldu dute

■ Hilabete egonda itxita bonba batek txikituta utzi zuenetik ■ Posta zerbitzuak ez zuen etenik izan.



Correoseko egoitza konpondua.

CORREOSEKO bulegoa jendearentzako zabalik dago berri, hilabetean itxita egon eta gero. Otsailaren 28 goizean kaputxadun batek utzi zuen bonba lehertu eta erabat txikituta gelditu zen bulegoa. Hala

ere, eta jendearentzako itxita egon bazen ere, posta zerbitzuak jarraitu egin zuen, langile batek Kronikari esan dienez. Correoseko iturriek diotenez, berritzeko lanak 20 milioi kosta dira. □

Ur-Mia elkarteak urteko batzarra du igandean

■ Urteko balantzeaz eta datorren urteko egitasmoaz hitz egingo da ■ Deialdiak: 10:30etan eta 11:00etan.

EREÑOTZUKO Ur-Mia elkarteak bazkideek batzarra egingo dute datorren igandean. Gai nagusiak iazko balantzea eta datorren urteko planak izango dira.

Ur-Mia elkarteak 62 bazkide ditu (emakumezkoak ere bai) eta Tomas Solano da lehendakaria. Iaz egin zen kargu aukeraketa eta aurten ez da aldaketarik izango, ez lehendakartzan eta ez juntan ere.

IAZKO EKITALDIAK

Iaz ere Ur-Mia elkarteak martxa polita ibili zuen. Egunerokoaz gain, Santa Agedako kantu taldea berak antolatzen du. Auzo elkartearekin batera, Erramun Martikorena-ren kontzertua antolatu zuen, Bertso Latako desafioa ere bertan egin zen, mus txapelketak...

Ostean, mus txapelketarako zozketak egingo dira. □

■ BERTSOLARITZA

Iker Osa eta Unai Agirre 'Orixe' Sarian

■ Iraulioko Xabier Legarreta aranoarra, Amaia Agirre, Asier Otamendi eta Leire Ostolaza dituzte bertso lagun ■ Gaur, Añorgako elkarteak, 22:30etan.

IRAULIOKO bertsolariak txapelketaz josita dabilta: Orixe Saria, Gipuzkoako kanporaketa, Nafarroako txapelketa, Osiñalde Saria... Gaur Orixe Sarian kantatuko dute, Añorgan. Sariketa honek Hernanira etortzeko arrisku handia du, gure herrikoek berea ematen badute behintzat. Legarreta eta Osa beren txapelketatik kanpora gelditu dira eta motibazio bereziarekin joan litezke. Eta Agirrek, orain bi urte bezala finallean kantatu nahiko du. Oraingoan, Iñaki Zelaia pasa da finalera. □



Iñaki Zelaia



ETXE ONENAK, S.A.
GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI



Bidaiaik
HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA

HERNANI BIDAIAK

Urbietan, 6

☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74
Faxa: 943 - 33 01 74
20.120 HERNANI

San Joanetako kartela egiteko lehiaketa zabalik da

■ Kartelak “San Joan Jaiak. Hernani 2001” lema eraman beharko du derrigorrean ■ Lanak Biterin aurkeztu behar dira, apirilaren 24a baino lehen.



Iazko San Joanetako herri bazkarian. Hori da musajea!

HERNANIKO jaiak iragarriko dituen kartela zein izango den orain zabaldu den lehiaketak esango du. Kartelak 32 zmko zabalera eta 40 zmko luzera izan beharko du. Eta kartelgileak, berriz, hernanikoa izan beharko du, udalak kaleratutako oinarrietan agertzen denez.

Bestalde, derrigorrezkoa da kartelak *SAN JOAN JAI*AK.

Sari bakarra dago: 45.000 Pta irabazten duenarentzako

HERNANI 2001 lema izatea. Lana edozien kolore edo modalitate artistikotan aurkeztu liteke.

BITERIN AURKEZTU

Lanak Biterin aurkeztu behar dira apirilaren 24a baino lehen, arratsaldeko seietatik zortzietara. Lanak sinadurarik gabe aurkeztu behar dira, egilearen izen abizena beste sobre batean dituela.

Zein kartelek irabaziko duen Kultura batzordean erabakiko da, aurretik Jai batzordearen iritzia kontuan hartuta.

KORRIKA

Atzo hasi zen Korrika Gasteizen

■ Hernanitik apirilaren 6ean pasako da, gaueko 21:17ak aldera ■ Haurretzako jokuak eta bizikleta martxa izango dira bihar.

KORRIKA kulturalaren barruan haurretzako jokuak izango dira, bihar, Tilosetan, goizko 10:00etatik aurrera. Eguerdiko 12:00etan, berriz, bizikleta martxa aterako da Plazatik herriko auzoetara.

BERTSO SAIOA

Apirilaren 5ean bertso trama izango da; 6an, berriz, Korrika txikia eta txokolatada, musika eskolako ikasleen kalejira, Ttarla eta Kantuzen emanaldia eta Herri afaria.

AFARIA ETA ERROMERIA EREÑOTZUN

Apirilaren 6ean afaria izango da Ur-Mia elkartearen. Txartelak 2.500 ptan Irrintzi tabernan eta Ur-Mian. Ondoren Etzakit taldea izango da Plazan. □

ESKOLARTEKO KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA

■ FUTBOL SALA

Benjaminak
(09:15etan Kiroldegian)
Elizatz A-Inmaculada
Benjaminak
(10:15etan Kiroldegian)
Elizatz B-Urumea
Benjaminak
(11:15 Kiroldegian)
Langile B-Langile A

■ FUTBOLA

Infantilak:

(09:00etan Zubipen)
Langile-Andoaingo Ikas.
Infantilak:
(Andoaingo)
Leitzaran-Urumea
Mutil Alebinak:
(10:15etan Karabelen)
Elizatz B-Inmaculada
Mutil Alebinak:
(10:15etan Langilen)
Langile C-Urumea A
Mutil Alebinak:
(11:15etan Karabelen)
Langile A-Langile B
Mutil Alebinak:
(11:15etan Langilen)
Elizatz A-Urumea B

IGANDEA

■ GIMASIA erritmikoko probak izango dira datorren igandean Hernanin. Eskolarteko proben bigarren fasea jokatu da Kiroldegian, goizeko 09:00etan hasita. Hernaniko eta kanpoko gimnasta gazteak etorriko dira.



Kontzentrazioa gaur eta Presoen aldeko ekintza N-1ean, larunbatean

■ Kontzentrazioa, 20:00etan da Gudarien plazan.

GAUR eta bihar presoen aldeko ekitaldiak egingo dituzte Senideak elkarteak eta Anmistiaren Aldeko Batzordeak. Gaur iluntzerako kontzentrazioa deitu du *Senide*ak kartzelan osasun eskubiak bete ditezela eskatzeko.

N-1 EAN, 25 METRORO

Larunbatean N-1 osoa presoak Euskalerriratzearen aldeko ikurrek betetzeko ekimena antolatu dute Anmistiaren Aldeko Batzordeak: 25 metrora lagun bat presoen aldeko banerarekin. Hernaniko batzordetik esan zaigunez, “ekintza hau presoek apirileko greba orokorrari egiten dioten aportazioa da”. Gestorek diotenez, Hernanialdeari Lasartetik Iru-

ñako autobideraino dagokio. Larunbat goizean 11:00-etan gelditu dira Atsegindegian eta 11:30etan Bazkardon.

ETXE MIAKETA

Atzo Guardia Zibilak etxe bat miatu zuen Karmelo Labakan, Gestorek zabaldu dutenez. F. V. atxilotzera joan dira, hasieran ordenik gabe eta bigarren txandan ordenarekin. Ajenteek etxea hankaz gora utzi eta pisukidea atxilotu egingo zutela ere mehatxatu egin omen zuten, baina, hiru ordutan dena miatu eta ez zuen inor atxilotu. Gestoren arabera, beste etxebizitza batzuek ere miatu dituzte hernaniarraren bila. Gestorek, azken egunotako Guardia Zibilen presentzia salatu dute. □

■ HITZ BITAN

✓ EA

Eusko Alkartasunak ‘Hiri Batzarra’ du gaur.

Elkartetxean izango da arratsaldeko 19:00etan hasita. EA alderdiak alderdikide eta afiliatuei dei egiten die batzarrera joateko.

✓ 1944-KO KINTOAK

Bazkaria Fagollaga jatetxean. 1944ko kintoek bazkaria dute apirilaren 8an, igandea. Izena emateko deitu Juan Aierberi (943 551989) edo A. Perezi (943 554630).

✓ GALDUTAKOAK

‘Pentax’ argazki kamera bat galdu da. Aurkitu ezker 943-551049 telefonora deitu. Ordainsaria izango da.

✓ HITZALDIA BITERIN

‘Euskal Estetikaz’ ariko dira gaur. Kepa Pikabearen margo erakusketa dago Biterin. Horren bueltan ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte. Gaur Iñaki Azuza idazlea eta Fermin Muguruza kantaria ariko dira *Euskal Estetikaz*. Biterin, arratsaldeko 19:30etan.

✓ SARI BANAKETA TXANTXANGORRIN

Mus txapelketako sariak banatuko dira gaur.

Txantxangorri elkartearen afaria izango da gaur direktibo eta sarituekin. Afalostean banatuko dira mus txapelketako sariak. Irabazleak: buruz-buru Bixente eta parejatan Etxarri-Iraola.

ASTEBURUKO ZINEA BITERIN

‘Cadena de favores’ eta ‘102 Dalmatas’

■ *Cadena de favores*, helduentzat, gaur 22:30etan. ■ *102 Dalmatas* larunbat eta igandean bostetan

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 11:40etan: Korrika dela eta Goizuetako barrikoteari buruz
12:15etan: Lasarteko AEKkoekin Korrika Kulturalaren inguruan
12:40etan: Takolo, Pirritx eta Porrotxeekin azken aldiko giroari buruz.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalarri anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

►Egunez: Correa Antziola 44
☎ 943 551933
►Gauetz: Acha-Orbea Lasarte, Hipodromo etorbidea 6
☎ 943 3634



MUEBLES HERNANI

ERABATEKO LIKIDAZIOA,
DENDA IXTERA GOAZ-ETA.

Astelehenetik Ostiralera 16:00etatik 20:00etara
eta Larunbatetan 10:30etatik 13:00etara Zabalik.

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI